| 27 | 7609 | IRUÑA | IRUÑA-EZCABA- HI BERRIA | EB | 4.260.740 | 116.408 | 4.034.158 | 110.174 | 0 | 0 |
| 28 | 7609 | IRUÑA | SAN FRANCISCO HI. HITZARMENA UDALA (HITZARMENA) | B | 25.000 | 0 | 10.000 | 15.000 | 720.000 | 0 |
| 29 | 7609 | SANTACARA | SANTACARA, HI - BERRITU (Espazioak birmoldatu) | B | 342.200 | 93.487 | 248.713 | 0 | 0 | 0 |
| 30 | 7609 | TUTERA | TUTERA, HI BERRIA | EB | 200.000 | 0 | 100.000 | 100.000 | 4.303.900 | 0 |
| 30 | 7609 | TUTERA | TUTERA, HBIP TORRE MONREAL, Handitu, igerilekua eta birmoldaketak | HB | 1.018.745 | 0 | 470.000 | 548.745 | 0 | 0 |
| 31 | 7609 | VIANA | VIANA. HI HANDITU (Hitzarmena udalarekin) | H | 516.000 | 40.000 | 40.000 | 436.000 | 0 | 0 |
| 32 | 7609 | VILLAFRANCA | HI VILLAFRANCA. HANDITU | H | 879.350 | 158.611 | 720.739 | 0 | 0 | 0 |
| 33 | 7609 | ZUDAIRE | ZUDAIRE HI (Gobernuko departamentuen arteko hitzarmena) | HB | 400.000 | 0 | 400.000 | 0 | 0 | 0 |
| | 7609 | FORU ERKIDEGOA | FAKTURAK | | | | 102.426 | 113.769 | | |
| | 7609 | | 7. KAPITULUA, GUZTIRA (7609) | | | 919.666 | 9.527.556 | 8.486.227 | 9.016.302 | 2.000.000 |

# Galdera, jakiteko Gobernuaren ustez noiz egonen den abian Cortesek Moncayoko Uren Mankomunitatetik ur-hornidura jaso ahal izateko azpiegitura.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, jakiteko Gobernuaren ustez noiz egonen den abian Cortesek Moncayoko Uren Mankomunitatetik ur-hornidura jaso ahal izateko azpiegitura.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 5eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras andreak galdera egin du Cortes udalerriko ur-hornidurari buruz. Hona Toki Administrazioko Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez daki zein txostenetan, Figueras andreak aipatutakoak, gomendatzen den Moncayoko Ur Mankomunitatearen bidez hornitzea Cortes udalerria.

Corteseko Udalak eta Moncayoko Ur Mankomunitateak dute eskumena, eta ez Nafarroako Gobernuak, gai horri buruzko erabakiak hartzeko, eta, hala badagokio, jarduerak lehenesteko udalaren eta Mankomunitatearen eremuan, eta horretarako finantziazio-laguntza eskatzeko Nafarroako Gobernuari.

Dena dela, eta Nafarroako Gobernuari dagokionez, azaldu behar dut Altako Ur Horniduraren Plan Zuzendariak Cortes eta aztertzen ari garen zona –16. zk.-hegoaldea– osatzen duten herrialde guztiak hornitzea aurreikusten duela; horien artean dago, besteak beste, aipatutako Moncayoko Ur Mankomunitatea, eta, horretarako, Nafarroako Ubideko baliabideak erabiliko ditu, hango ura eskuragarri jartzen denean.

Halaber, eta Cortes udalerrian ur-hornidurarekin dituzten arazoak direla eta, Toki Azpiegituren Planean (2005-2008) aurreikusi zen 2.400 metro kubikoko edukiera izanen duen depositu erregulatzailea eraikitzea, baita Edateko Uren Araztegia eraikitzea ere. Egun, instalazioa egiten ari dira, eta Cortes udalerriak eskatzen duen ur-kantitatea eta -kalitatea bermatuko da.

Hala jakinarazten dut, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Toki Administrazioko Departamentuko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

# Galdera, Iberbanda banda zabaleko operadoreak ematen duen zerbitzuak Bortzirietan dituen akatsei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Iberbanda banda zabaleko operadoreak ematen duen zerbitzuak Bortzirietan dituen akatsei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 5eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako José Ángel Agirrebengoa Imaz foru-parlamentariak Iberbanda banda zabaleko operadoreak ematen duen zerbitzuan gertatzen diren akatsei buruz egindako informazio-eskaerari erantzunez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak honako hau adierazi du:

"Nafarroako Foru Komunitatean banda zabaleko telekomunikazioetako azpiegiturak garatzeko plan zuzendaria, 2003-2006 aldirako" gaiarekin zerikusia du egindako galderak. Plana osatzen duen ildoetako bat telekomunikazioetako azpiegitura epe laburrera zabaltzea da, hainbat aukera teknologiko eskuragarri izango dituen sare bat osatzeko, eta, horrela, lurralde osoan banda zabaleko zerbitzuak orokorrak izan daitezen. Helburua hori izanik, sarea hedatu eta zerbitzua emanen zuen enpresa aukeratzeko lehiaketa-deialdia egin zen, eta Iberbanda enpresa izan zen esleipenduna.

Galderan adierazten den zerbitzu-gabezia, Etxalar udalerriari bereziki eragindako arazoei buruzkoa da. Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan agindu dio Iberbanda enpresari udalerriko erabiltzaileak erabat gogobetetzeko moduan berrezartzeko zerbitzua.

Etxalar udalerrian bereziki duten arazoari dagokionez, zonaldeko orografia bereziak baldintzatzen duen egoera da, eta erabiltzaileek egindako kexak direla-eta, banagunea aldatu egin zen irailaren 10ean. Oraindik ere zenbait kaltetu kexu zirenez, berriz ere banagunea aldatu egin zen, baita konektoreak eta kableak ere, irailaren 21ean, ostiralean. Irailaren 22an, larunbatean, bezero batzuk oraindik ere kexu ziren, eta, ondorioz, igandean, 23an, banagunea berriz ere aldatu egin zen, baita frekuentziak ere.

Arazoa konpondu ez zenez, irailaren 24an, astelehenean, Nafarroako Gobernuak berriz ere agindu zion Iberbandari, lehentasuna emateko arazoa konpontzeari; eta, horrela, urriaren 3an, arazoa konponduta zegoen.

a) Bai, Iberbanda, Udala eta erabiltzaileen bidez. Nafarroako Gobernuak astero izaten ditu aipatutako enpresarekin jarraipen-bilerak, Iberbandak egikaritzen duen sarea Foru Komunitatean behar bezala hedatzen dela eta funtzionatzen duela bermatzeko.

b) eta c) Funtsean, arazoak interferentziei eta estaldura-mugei buruzkoak dira, eta horiek orografia-baldintzekin dute zerikusia. Beste gai batzuk erantzunaren sarreran argitzen dira.

Iberbandako Merkataritza eta Marketin Departamentuak bezero guzti-guztiei bidali dizkie gutunak, gertatutakoa azaltzeko, barkamena eskatzeko eta diru-konpentsazioa eskaintzeko zerbitzurik gabe egon diren egunen ordainetan; izan ere, hala egitea eskatu zion Nafarroako Gobernuak enpresa esleipendunari.

d) Azaldu ditudan aldaketa horiek egin ondoren, sarea ondo dabil. Nafarroako Gobernuak ez du kexa gehiagoren berri izan.

e) Ez da posible espedientea irekitzea, Nafarroako Gobernuak sarea onartzen ez duen bitartean (urte bukaerarako aurreikusten da). Egun, sarea oraindik hedatze-aldian dago.

Iruñea, 2007ko urriaren 23a

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

# Galdera, udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzeari buruzkoa, 0tik 3 urtera bitarteko zikloarekin zerikusia duen guztia kudeatzeko.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzeari buruz, 0tik 3 urtera bitarteko zikloarekin zerikusia duen guztia kudeatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Hezkuntza kontseilariak 2007ko urriaren 4ko Hezkuntza Batzordean egin zuen agerraldian jakinarazi zuenez, Hezkuntza Departamentua aztertzen ari da ez ote litzatekeen komeniko udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzea, Haur Hezkuntzako lehen zikloa kudeatzeko.

Nafarroako Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentro publikoak kudeatzeko partzuergoa sortzeko aukerari buruzko azterlana hasierako fasean da. Hezkuntza Departamentuak zorrotz aztertu nahi du gaia 2007/2011 legealdi honetan, eta, beti ere, zerikusia duten alderdiak kontuan hartzen direla.

Partzuergoa sortzea baldintzatzen duen behinbehineko egoera bat hau da: zentroak kudeatzeko egungo eredua. Izan ere, udalen, familien eta Hezkuntza Departamentuaren artean banatzen da proportzionalki Hezkuntzako lehen zikloko Haur Hezkuntzako zentroen finantziazioa, eta eredu hori erabili da 2007. eta 2008. urteetako aurrekontuetako kontusailak kalkulatzeko.

Beraz, Nafarroako Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentroak kudeatzeko sor daitekeen partzuergoa 2009. urteaz geroztik izanen litzateke abian jartzeko moduan.

Iruñea, 2007ko urriaren 24a

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

# Galdera, irakaskuntzako sindikatuekin lanaldi etengabea ezartzearen inguruan lortutako akordioa Hezkuntza Departamentuak noraino bete duen jakitekoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du, irakaskuntzako sindikatuekin lanaldi etengabea ezartzearen inguruan lortutako akordioa Hezkuntza Departamentuak noraino bete duen jakitekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Lanaldi malgua abian jartzeko berariazko gaiari dagokionez, gure ustez, ezin da esan plangintza eza izan denik. Batetik, akordioa sinatu zenetik ikasturtea hasi bitarteko epea laburra zen, uda ere tartean; eta, bestetik, esperientzia berria da. Hortaz, nahasmendua eragin ahal izan die, ordutegiak eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzerakoan, ikastetxe eskatzaileei.

Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean, 2007ko martxoaren 28an sinatua, jasota dago Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxe publikotan eskola-ordutegi malgua ezartzea.

Proposamen hori III. atalean jasotzen da, ikastetxeei buruzkoan, eta araudi bat iragartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei aukera emateko, duten autonomia pedagogikoa eta antolamendu-gaietakoa erabiliz, eskola-ordutegi malgua ezar dezaten, ikasleak bai goizean bai arratsaldean hartzeko proiektu bati jarraituz.

Ekainaren 1eko 550/2007 Ebazpenaren bidez, lanaldi hori, proba gisa, 2007/2008 ikasturtean ezartzeko prozedura arautu zen.

Lau ikastetxeek aurkeztu zituzten proiektuak akordioaren jarraipena egiteko batzordean aztertu ziren, uztailaren 18an izandako bilkuran, eta onetsi egin ziren, nahiz eta erreferentzia-ebazpenean eskatzen zen dokumentazioren bat falta.

Gurasoei edo tutoreei egindako kontsultaren azken emaitza-aktak 2007ko irailaren 11n jaso zituen Hezkuntza Departamentuak. Antolaketa, Kalitate eta Berrikuntzarako zuzendari nagusiak irailaren 17an emandako 9/2007 Ebazpenaren bidez, 2007/2008 ikasturterako eskola-ordutegia aldatzeko proiektua onartu zen, hala eskatu zuten lau ikastetxeentzat.

Hezkuntza Departamentuak aholkulari bat eta ikuskatzaile-koordinatzaile bat izendatu ditu, beren artean komunikazioa errazagoa izan dadin, esperientzia pilotua koordinatzen eta gauzatzen laguntzeko, eta, bereziki, beste autonomia-erkidego batzuetako ikastetxeetako antzeko esperientziei buruzko informazioa emateko eta zentroen arteko komunikazio-foro bat ezartzeko, helburu hauetarako: ikasleen irakasaldiak antolatzeko, pedagogia-irizpideen arabera; irakasleen lanaldiak antolatzeko; material eta baliabide didaktikoak denen artean erabiltzeko; esperientziaren jarraipena eta balorazioa antolatzeko, etab.

Irailaren 25ean, Antolaketa, Kalitate eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak eta lau ikastetxeetako zuzendariek bilera izan zuten, eta hau zen helburua:

– Antolaketa, Kalitate eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak irailaren 17an emandako 9/2007 Ebazpena ematea; hain zuzen ere, 2007/2008 ikasturtean eskola-ordutegia aldatzeko proiektua onesten zuena.

– Lau ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei lehendabiziko testu bana ematea, eskola-ordutegia aldatzeko proiektua bultzatzeko eta ezarritako helburuekin bat datorrela ziurtatzeko, bai baliabideen kudeaketa autonomoen arloan, bai ikasleei eta haien familiei eskaintzen zaien hezkuntza-zerbitzuen hobekuntzaren arloan.

– Lau ikastetxeetako zuzendaritza-taldekoei aurkeztea nor diren Hezkuntza Departamentuak izendatutako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzuko ikuskatzailea eta aholkularia, beren arteko komunikazioa errazteko eta esperientzia pilotua koordinatzen eta abian jartzen laguntzeko.

– Jakinaraztea eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontuko dirulaguntzak %100 eginen zuela gora, 2007ko ekainean jasotakoaren aldean.

– Jakitea zehatz-mehatz arratsaldeko ordutegian eskolaz kanpoko zer jarduera antolatuko dituzten, ikastetxe bakoitzeko Urteko Programazio Orokorrean erantsiak.

– Jakitea ikastetxeetako Eskola Kontseiluek zer ildo dituzten ezarrita, erakundeekin, udalekin eta kultura- eta kirol-elkarteekin elkarlanean aritzeko, eta horiek eskolaz kanpoko jardueretan zenbateraino inplikatzen diren jakitea.

Bilera hura egin ostean, aholkulariaren eta ikastetxeen arteko komunikazioa etengabea izan da. Laguntzarako materiala eskaini zaie, zenbait eskolaz kanpoko jarduera proposatu zaie, lanaldi malguko egoerara egokitzeko egutegien baimena arautu da, eta, bestalde, ikastetxeei eskatu zaie eskolaz kanpoko jardueren antolaketari eta haiek abian jartzeari buruzko proiektuak zehaztuta bidaltzeko.

Akordioaren jarraipena egiteko batzordeak, halaber, lanaldi malguari buruzko jarraipenaren gaia bi bileratan izan du mintzagai; horietako bilera batean, gainera, gai bakarra izan zen.

Azkenik, eta 2007/2008 ikasturtean eskola-ordutegi malguaren jarraipena, ebaluazioa eta hura hobetzeko proposamenak egin ahal izateko, Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak testu bat bidali du eskola-ordutegi malgua ezartzeko zenbait agindurekin; testu horretan, gai hauei buruzko zenbait alderdi zehazten dira: ikasleen eta irakasleen ordutegia, eskolaz kanpoko jardueren programazioa eta esperientzia ebaluatzeko jarraibideak. Agindu horiek akordioaren jarraipena egiten duen batzordean ere landu dituzte.

Eskolaz kanpoko jardueren antolaketari dagokionez, aipatutako ekainaren 1eko 550/2007 ebazpenaren bidez, erabaki zen eskolaz kanpoko jarduerak Hezkuntza Proiektuari jarraituta antolatu eta koordinatu behar direla. Eginkizun horretan, irakasleak, gurasoak, erakundeak, udalak eta kultura- eta kirol-elkarteak ere inplikatu ahalko dira.

Ikastetxeek aurkeztu beharreko proiektuen nolakotasuna ere zehazten da, eta eskolaz kanpoko jarduerei dagokienez, hona hemen dioena:

Arratsaldeko ordutegiko eskolaz kanpoko jardu-era-proiektuak, gutxienez, puntu hauek adierazi behar ditu:

Jardueren ordutegia.

Laguntzen duten elkarteak eta erakundeak, eta haien inplikazio-maila.

Finantziazioa.

Jarduerak baztertzaileak ez direla izango ziurtatzeko prozedura.

Ikastetxeen antolaketa arautzen duen araudia (24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onetsi zuena, eta 257/1998 Foru Aginдua, Erregelamendu Organiko hori garatzen duena), eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programazioari eta garapenari dagokionez, bereziki arduratzen da ikastetxeetako eskola kontseiluen, gurasoen elkarteen eta zuzendaritza-taldeen eskumenak ezartzeaz. Aipatutako Foru Aginduaren 6. artikuluan hauxe ezartzen da:

• Ikasturte hasieran, ikastetxe guztiek prest izan beharko dute Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Jardueren Programazioa. Hortaz, ikasketaburuak edo, horrelakorik ez badago, zuzendariak eginen du jarduera horien urteko programazioa, Eskola Kontseiluak aurretik prestatutako ildoei jarraiki. Horretarako, Klaustroaren eta Guraso Elkarteen proposamenak bildu beharko ditu. Programazio hori Urteko Programazio Orokorraren barruan sartuko da.

• Eskolaz kanpoko jarduerek bat etorri beharko dute ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin, eta hura behar bezala garatzeko baliagarriak izan. Jarduerak planifikatzerakoan, zehaztuko dira helburuak, arduradunak, egiteko garaia eta tokia, ikasleek parte hartzeko modua, bai eta aurrekontuko kostua ere.

Araudia betetzeari dagokionez, jakina, eskolaz kanpoko jarduerak programatzea eta antolatzea ikastetxearen eskumenekoa da.

Bestalde, gaur egungo hezkuntzaren testuinguruan, LOEaren zein akordioaren beraren helburua ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolamendu-gaietakoa bultzatzea da, eta hurbilen duten inguruan txertatzea ere bai. Ikastetxean dauden ikasleen, hura kokatuta dagoen inguruaren eta kulturaren arabera, ikastetxeek nork bere ezaugarriak eta berezko premiak zein bereziak dituzte. Ikastetxeko premia eta berezitasun horiek ondoen ezagutzen dituztenak bertako zuzendaritza-taldea, klaustroa, ikasleen gurasoen elkartea eta Eskola Kontseilua dira.

Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko akordioan Hezkuntza Departamentuak bere gain hartu zituen konpromisoak, zehatz-mehatz, parlamentariak berak egindako galderan aipatzen dira: eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura handitzeko konpromisoa, eta lankidetza-hitzarmenak sinatzekoa tokian tokiko entitate publikoekin eta pribatuekin.

Finantziazioa areagotzeari dagokionez, aipatutako bileran jakinarazi zitzaien ikastetxeetako zuzendariei, 2007. urterako ikastetxeentzat esleitutako aurrekontua bikoiztu egingo zela, ekainean emandako 658 eta 659 ebazpenen bidez erabakia. 2008. urterako aurrekontua erabakitzeko dago, Parlamentuak horri buruz onartuko duen zenbatekoaren baitan baitago.

Tokian tokiko erakundeekiko lankidetza-hitzarmenei dagokienez, ikastetxean dauden ikasleen, hura kokatuta dagoen inguruaren eta kulturaren arabera, ikastetxeek nork bere ezaugarriak eta berezko premiak zein bereziak dituzte. Ikastetxeko premia eta berezitasun horiek ondoen ezagutzen dituztenak bertako zuzendaritza-taldea, klaustroa, ikasleen gurasoen elkartea eta Eskola Kontseilua dira. Horrenbestez, eta 24/1997 Foru Dekretuak 8. artikuluan jasotzen duenari jarraituz, ikastetxeko Eskola Kontseiluak, besteak beste, eskumen hauek ditu: eskolaz kanpoko jarduerak programatzeko eta gauzatzeko jarraibideak osatzea, eta beste ikastetxe, elkarte eta erakunde batzuekin lankidetza-harremanak izateko irizpideak ezartzea, helburu kultural zein hezkuntzazkoekin.

Hezkuntza Departamentuak tokian tokiko entitateekin eta pribatuekin lankidetza-hitzarmenak sinatzeko, nahitaezkoa da Eskola Kontseiluak jarraian aipatzen ditugun hauen zehaztea:

– eginen duen jarduera,

– zein entitateri, tokian tokikoa edo pribatua, eskatu behar dion lankidetza Hezkuntza Departamentuak,

– nolako laguntza eskatu behar duen (lokala utzi, materiala utzi, giza baliabideak, etab.),

– lankidetza noiz eta zenbat denboran emanen den.

Ikastetxeak hala eskatzen duenean, Hezkuntza Departamentuak bitartekari-lanak egin ditu eskolaz kanpoko jarduera jakin bat egiteko ardura duten entitate edo erakundeekin; proposamena ikastetxeko zuzendaritza-taldeak egiten dio depar-

tamentuari, Eskola Kontseiluak ezarritako irizpideei jarraituz.

Esate baterako, Vianako “Ricardo Campano” Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak Hezkuntza Departamentuak esku-hartzea eskatu du, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareari laguntza eska diezaion, eta, horrela, “Ezagutu liburutegia. Irakurketarako hastapena” izeneko eskolaz kanpoko jarduera egin ahal izan. Hezkuntza Departamentuak jarduera hori gauzatzeko, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearekin ezarria du lankidetza.

Halaber, Hezkuntza Departamentuak askotan izan ditu harremanak Tuterako Udalarekin, ikastetxeko proiektuekiko laguntza zehazteko; proiektu horiek, pixkanaka-pixkanaka, jarduera-programazio bihurtzen ari da, eta behar dituen laguntzak antolatuko dira.

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

---

## Galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak prostituzioari buruz dituen azterlanei eta arlo horretan aplikatzen ari diren esku-hartze sozialeko neurriei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Gizarte Gaietako Departamentuak prostituzioari buruz dituen azterlanei eta arlo horretan aplikatzen ari diren esku-hartze sozialeko neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 5eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin zuen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak prostituzioari buruz dituen azterketei eta aplikatzen ari diren neurriei buruz, eta idatzi hau sinatu duen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak erantzun hau eman dio:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera hauek egin ditu, eta erantzunak idatziz jaso nahi ditu:

1.- “Zer azterlan kuantitatibo eta/edo kualitatibo ditu Gizarte Ongizateko Departamentuak Nafarroako prostituzioari buruz?”

Badira gai horri buruz duela gutxi egindako zenbait azterlan, baina, jakina, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak ditu:

Horietatik guztietatik, egin den azkena “Giza Eskubideei eta prostituzioari buruzko txosten berezia” izenekoa da, Arartekoko Bulegoak egin zuen eta Parlamentuko Foru Eraentzako Batzordean aurkeztu zen, 2005eko apirilaren 13ko bilkuran.

2002. urtean argitaratu zen dokumentu hau: “La prostitución en Navarra: una mirada desde la investigación y la experiencia”, Imanol Azanza, Helena Olleta eta Juan Sanz egileena.

2003. urtean, Hezkuntza, Zuzenbide, Medikuntza, Gizarte Lan, Psikologia eta beste diziplina batzuetako profesional-talde batek lan hau argitaratu zuen: “El oficio de la prostitución en Navarra: estigmas y modo de vida”.

Azterlan horiek nahikoak dira gaia behar bezala aztertzeko, eta, beraz, ez da beharrezkoa Departamentu honek berariazko azterlan gehiago osatzea.

2.-“Esku-hartze sozialeko zer neurri ari da aplikatzen aipatutako departamentua sektore horretako beharrak identifikatzeko?”

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren ustez, prostituzioa fenomeno konplexua da, ikuspuntu asko dituena eta hainbat arlo abiapuntu hartuta aztertu beharrekoa; besteak beste: judiziala, polizia-arloa, fiskala, soziala, lan-arloa, osasuna, egoitza-arloa eta hezkuntza.

Horregatik guztiagatik, Departamentuak ez du zuzenean jarduerarik gauzatzen Nafarroan prostituzioan aritzen diren pertsonekin; hau da, haiek dituzten premiei komunitateetako gizarte-zerbitzuek erantzuten diete, herritar guztioi laguntzeko baitaude.

Dena dela, Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaietarako Departamentuak diruz laguntzen ditu irabazi-asmorik gabe sektorean lan egiten duten ekimen sozialeko elkarteek antolatzen dituzten programak. Hain zuzen ere, aurten, abenduaren 1eko 272/2006 Foru Aginduz onetsitako deialdian eta uztailaren 3ko 3002/2007 Ebazpenez erabakia, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, "Sortzen diren bestelako gizarte-bazterketa moduen aurka borrokatzeko proiektuak" izeneko dirulaguntzen atalean, prostituzioarekin zuzenean zerikusia duten programa hauek lagundu dira diruz:

– Munduko Medikuak erakundea: Hurbilketa-programa: gizarte-bazterketa egoeran egoteko arriskua duten edo egoera horretan dauden emakumeentzako arreta. Emandako dirulaguntza: 4.347,82 euro.

– Itxaropen Gune elkartea: "AGAR" programa, gizarteratzea, prostituzioa. Emandako dirulaguntza: 24.650 euro.

Bestalde, Gizarteratze Zerbitzuko langile teknikariek koordinazio-bileretan parte hartu dute, sektorean lan egiten duten ekimen sozialeko erakundeekin eta elkarteekin. Horrezaz gain, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak kolektiboko pertsonen osasun-arretarako zerbitzua itundua duenez, haiek hautematen dituzten premia sozialak Gizarte Zerbitzuen sarera eta berariazko baliabideetara bideratzen dira; esate baterako, tratu txarrak jaso dituzten emakumeak hartzeko daudenak, jarduerari utzi nahi diotenei laguntzeko daudenak, etab.

Bukatzeko, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentua Nafarroako Bazterketa Sozialen Aurka Borrokatzeko 2. Plana idazten ari da, eta prostituzioa gai bakarra izango duen atala erantsiko da.

Iruñea, 2007ko urriaren 25a

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

---

## Galdera, Berriozarko Udalak Berriozarko "Laira" emakumeari laguntzeko zentroarekin sinaturiko hitzarmena betetzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Berriozarko Udalak Berriozarko "Laira" emakumeari laguntzeko zentroarekin sinaturiko hitzarmena betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru-parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Berriozarko Udalak eta emakumeen arretarako Berriozarko Laira zentroaren artean sinatutako hitzarmenaren betetze-mailari buruz. Idatzi hau sinatu duen Osasun kontseilariak erantzun hau eman dio galdera horri:

1.- Sinatutako hitzarmena indarrean egonen da 2007ko abenduaren 31 arte, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak datorren urtera ere luzatu nahi duela adierazi du.

Hitzarmena sinatu zenetik beretik ari gara lanean, indarrean egon den bitartean, klausula guzti-guztiak posible izan daitezen; horrenbestez, azken bi urteotan, Laira zentroan lanean ari diren Berriozarko Udaleko langileek zentro horretan daudenen Historia Kliniko Informatizaturako sarbidea dute.

2.- Azken bi hilabeteotan, abenduaren 31 baino lehen.

3.- Osasun Departamentuak Berriozarko Udalarekin sinatuta duen hitzarmena berritzea aurreikusten du, eta, horretarako, 2008ko Gastuen

Aurrekontuan erantsi du horri dagokion kontusaila, 145.600 euroko zenbatekoa, hain zuzen.

4.- Buztintxuriko Osasun Zentroaren proiektuan, Emakumearen Arretarako Zentroa erantsi da, baina Berriozarko Zona Nagusiko gaixoei dagokienez, oraindik ez da erabaki Osasun Zentro berrian sartuko diren edo Udalarekin sinatuta zuen hitzarmenari eutsiko zaion.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

# Galdera, Virgen de la Cabeza ikastetxearen egoerari eta lanaldi etengabea ez ezartzeko arrazoiei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du Virgen de la Cabeza ikastetxearen egoerari eta lanaldi etengabea ez ezartzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## ERANTZUNA

Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean, 2007ko martxoaren 28an sinatua, jasota dago, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxe publikotan eskola-ordutegi malgua ezartzea.

Proposamen hori III. atalean jasotzen da, ikastetxeei buruzkoan, eta araudi bat iragartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei aukera emateko, duten autonomia pedagogikoa eta antolamendu-gaietakoa erabiliz, eskola-ordutegi malgua ezar dezaten, ikasleak bai goizean bai arratsaldean hartzeko proiektu bati jarraituz.

Ekainaren 1eko 550/2007 Ebazpenaren bidez, lanaldi hori, proba gisa, 2007/2008 ikasturtean ezartzeko prozedura arautu zen, eta erabaki zen eskolaz kanpoko jarduerak Hezkuntza Proiektuari jarraituta planifikatu eta koordinatu behar direla. Eginkizun horretan, irakasleak, gurasoak, erakundeak, udalak eta kultura- eta kirol-elkarteak ere inplikatu ahalko dira.

Aipatutako ebazpen horretan bertan, ikastetxeek aurkeztu beharreko proiektuen nolakotasuna ere zehazten da, eta eskolaz kanpoko jarduerei dagokienez, hona hemen dioena:

Arratsaldeko ordutegiko eskolaz kanpoko jarduera-proiektuak, gutxienez, puntu hauek adierazi behar ditu:

Jardueren ordutegia.

Laguntzen duten elkarteak eta erakundeak, eta haien inplikazio-maila.

Finantziazioa.

Jarduerak baztertzaileak ez direla izango ziurtatzeko prozedura.

Ikastetxeen antolaketa arautzen duen araudia (24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onetsi zuena, eta 257/1998 Foru Agindua, Erregelamendu Organiko hori garatzen duena), eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programazioari eta garapenari dagokionez, bereziki arduratzen da ikastetxeetako eskola-kontseiluen, gurasoen elkarteen eta zuzendaritza-taldeen eskumenak ezartzeaz. Aipatutako Foru Aginduaren 6. artikuluan hauxe ezartzen da:

· Ikasturte hasieran, ikastetxe guztiek prestatu beharko dute Eskolaz Kanpoko Jardueren Programazioa. Hortaz, ikasketaburuak edo, horrelakorik ez badago, zuzendariak eginen du jarduera horien urteko programazioa, Eskola Kontseiluak aurretik prestatutako ildoei jarraiki. Horretarako, Klaustroaren eta Guraso Elkarteen proposamenak

bildu beharko ditu. Urteko Programazio Orokorrean erantsiko da programazio hori.

· Eskolaz kanpoko jarduerek bat etorri beharko dute ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin, eta hura behar bezala garatzeko baliagarriak izan. Jarduerak planifikatzerakoan, zehaztuko dira helburuak, arduradunak, egiteko garaia eta tokia, ikasleek parte hartzeko modua, bai eta aurrekontuko kostua ere.

Araudia betetzeari dagokionez, jakina, eskolaz kanpoko jarduerak programatzea eta antolatzea ikastetxearen eskumenekoa da.

Bestalde, gaur egungo hezkuntzaren testuinguruan, LOEaren zein akordioaren beraren helburua ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolamendu-gaietakoa bultzatzea da, eta hurbilen duten inguruan txertatzea ere bai. Ikastetxean dauden ikasleen, hura kokatuta dagoen inguruaren eta kulturaren arabera, ikastetxeek nork bere ezaugarriak eta berezko premiak zein bereziak dituzte. Ikastetxeko premia eta berezitasun horiek ondoen ezagutzen dituztenak bertako zuzendaritza-taldea, klaustroa, ikasleen gurasoen elkartea eta Eskola Kontseilua dira.

Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak Virgen de la Cabeza HLHIPko eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea pentsaezinezko esku-hartzea izanen litzateke; izan ere, ikastetxeak autonomia du, eta gobernu-organoen berezko eskumenetan eta ikastetxeko ikasleen gurasoen elkartearen eskumenetan sartzea litzateke.

Horrezaz gain, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko akordioan Hezkuntza Departamentuak bere gain hartu zituen konpromisoak, zehatz-mehatz, parlamentariak berak egindako galderan aipatzen dira: eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura handitzeko konpromisoa, eta lankidetza-hitzarmenak sinatzekoa tokian tokiko entitate publikoekin eta pribatuekin.

Hezkuntza Departamentua behar bezala ari da betetzen konpromiso horiek:

Hezkuntza Departamentuak aholkulari bat eta ikuskatzaile-koordinatzaile bat izendatu ditu, beren artean komunikazioa errazagoa izan dadin, esperientzia pilotua koordinatu eta gauzatzen laguntzeko, eta, bereziki, beste autonomia-erkidego batzuetako ikastetxeetako antzeko esperientziei buruzko informazioa emateko eta ikastetxeen arteko komunikazio-foro bat ezartzeko, helburu hauetarako: ikasleen irakasaldiak antolatzeko, pedagogia-irizpideen arabera; irakasleen lanaldiak antolatzeko; material eta baliabide didaktikoak denen artean erabiltzeko; esperientziaren jarraipena eta balorazioa antolatzeko, etab.

Irailaren 17an, Antolaketa, Kalitate eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emandako ebazpenaren bidez, eskola-ordutegia aldatzeko proiektua onartu zen lau ikastetxeetarako. Halaber, irailaren 25ean Hezkuntza Departamentuan haiekin bilera izan nahi zuela jakinarazi zien, eta hau zen helburua:

– Antolaketa, Kalitate eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak irailaren 17an emandako 9/2007 Ebazpena ematea; hain zuzen ere, 2007/2008 ikasturtean eskola-ordutegia aldatzeko proiektua onesten zuena.

– Jakinaraztea eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontuko dirulaguntzak %100 eginen zuela gora.

– Lau ikastetxeetako zuzendaritza-taldekoei aurkeztea nor diren Hezkuntza Departamentuak izendatutako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzuko ikuskatzailea eta aholkularia, beren arteko komunikazioa errazteko eta esperientzia pilotua koordinatzen eta abian jartzen laguntzeko.

– Jakitea zehatz-mehatz arratsaldeko ordutegian eskolaz kanpoko zer jarduera antolatuko dituzten, ikastetxe bakoitzeko Urteko Programazio Orokorrean erantsiak.

– Jakitea ikastetxeetako Eskola Kontseiluek zer ildo dituzten ezarrita, erakundeekin, udalekin eta kultura- eta kirol-elkarteekin elkarlanean aritzeko, eta horiek eskolaz kanpoko jardueretan zenbateraino inplikatzen diren jakitea.

– Lau ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei lehendabiziko testu bana ematea, eskola-ordutegia aldatzeko proiektua bultzatzeko eta ezarritako helburuekin bat datorrela ziurtatzeko, bai baliabideen kudeaketa autonomoen arloan, bai ikasleei eta haien familiei eskaintzen zaien hezkuntza-zerbitzuen hobekuntzaren arloan.

Bilera hura egin ostean, aholkulariaren eta ikastetxeen arteko komunikazioa etengabea izan da. Laguntzarako materiala eskaini zaie, zenbait eskolaz kanpoko jarduera proposatu zaie, lanaldi malguko egoerara egokitzeko egutegien baimena arautu da, eta, bestalde, ikastetxeei eskatu zaie eskolaz kanpoko jardueren antolaketari eta haiek abian jartzeari buruzko proiektuak zehaztuta bidaltzeko.

Virgen de la Cabeza HLHIPri dagokionez, bai aholkulariak, bai Antolaketa, Kalitatea eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak eskolaz kanpoko zenbait jarduera-proposamen bidali dituzte ikaste-

txera, ikastetxearen nolakotasuna ikusita egokiak iruditzen baitzitzaizkien: Ikastetxeko liburutegia erabiltzea (Irakurketarako hastapena. Etxeko lanak. Lanak. Ikasketa-teknikak); antzerki-tailerra (Nafarroako Munduko Medikuak erakundearen hezkuntza-proiektua); ordenagailua erabiltzea (eskolen arteko "Consumopolis" lehiaketan parte hartzea); "Bizimodu onaren sekretua" (Drogei buruzko Plan Nazionalak abian jarritako ekimena). Proposamen horiekin guztiekin batera, jarduerak abian jartzeko materiala ere erantsi da, eta aparteko kosturik gabe gauza daitezke.

Finantziazioa areagotzeari dagokionez, aipatutako bilera hartan jakinarazi zitzaien ikastetxeetako zuzendariei 2007. urterako ikastetxeentzat esleitutako aurrekontua bikoiztu eginen zela, ekainean emandako 658 eta 659 ebazpenen bidez. 2008. urterako aurrekontua erabakitzeko dago, Parlamentuak horri buruz onartuko duen zenbatekoaren baitan baitago.

Halaber, Hezkuntza Departamentuak askotan izan ditu harremanak Tuterako Udalarekin, ikastetxeko proiektuekiko laguntza zehazteko; proiektu horiek, dena dela, ez dira oraindik jarduera-programazioan zehaztu, behar diren laguntzak antolatu ahal izateko.

Ondorioak:

Hezkuntza Departamentua konpromisoak betetzen ari da, eta behar adinako aholkularitza-zerbitzua eskaini ondoren, eskolaz kanpoko jarduerak proposatu ondoren, aurreikusitako finantziazioa bikoiztu ondoren, eta udalarekin harremanak izan ondoren, zain dago eskolaz kanpoko jardueren proiektua zehazteko, eta, modu horretan, laguntzen jarraitzeko.

Hezkuntza Departamentuak ez du zertan ikastetxearen autonomia mugatu, ezta inola ere ikastetxeko organoen ordez aritu eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen eta garatzen.

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

# Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopuruari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Maria Luisa Mangado Cortes andreak galdetu zuen ea zenbat ikasle diren hautatutako ikastetxean matrikulatu ezin izan dutenak; galdera horri dagokionez, hona hemen nire erantzuna (erantsita dago).

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

(Oharra: aipatutako eranskina foru-parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Nagusietako bulegoetan).

---

# Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste duen Cortesko edateko uren araztegia funtzionamenduan jartzearekin uraren kalitatearen arazoa konponduko den.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak uste duen Cortesko edateko uren araztegia funtzionamenduan jartzearekin uraren kalitatearen arazoa konponduko den.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José Luis Izco Biarge jaunak galdetu du ea Nafarroako Gobernuak uste duen Corteseko ur-araztegia funtzionamenduan jartzean ur-kalitatearen arazoa behin betiko konponduko dela. Horri dagokionez, Toki Administrazioa departamentuko kontseilariak honako hau erantzun du:

Osasun Publikoko Erakundeak egin dituen azterketen arabera, Corteseko uretan zegoen trihalometano-kontzentrazioak (THM) ez zuen gehienezko muga gainditzen; are gehiago, erakunde horrek egindako azterketa bakar batean ere ez da aurkitu parametro horri dagokionez indarreko osasun-legediak baimentzen duen balioa baino kopuru handiagorik.

Hala eta guztiz ere, edateko uren araztegi berrian (une honetan, eraikuntza-lanak nahiko aurreratuta daude), amaierako iragazpen- eta desinfekzio-prozesuaren aurretik permanganato potasikoa isuriko da, badaezpada, uretan dagoen materia organikoaren oxidazioaren erreaktibotzat, eta, horrela, konposatu halogenatuak agertzea saihestuko da. Beraz, araztegi horren xedea Cortesen ura hornitzeko dauden arazoak konpontzea eta, kalitateari nahiz kantitateari dagokionez, berme osoa ematea da.

Halaber, aipatu behar da etorkizunean Nafarroako Ubidetik hartutako baliabideak erabiliko direla Cortes nahiz Erriberako gainerako herriak urez hornitzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Toki Administrazioa departamentuko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

# Galdera, ikasketa artistikoak zabaltzeko dirulaguntzei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du ikasketa artistikoak zabaltzeko dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Arte-ikasketak luzatzeko dirulaguntzei buruz Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Patxi Telletxea Ezkurra foru-parlamentariak egindako galderari erantzunez, honako hau adierazi du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak.

Telletxea jaunak arte-ikasketak luzatzeko dirulaguntzen inguruko hainbat gairi buruzko interesa agertu du; zehazki, honako hauei buruz:

1. 2007. urtean zergatik bideratu diren 105.000 euro dirulaguntza horiek emateko, baldin eta aurrekontuetan 150.000 euroko laguntza ematea aurreikusi bazen.

2007ko gastu-aurrekontuan, “Bekak eta arteheziketarako laguntzak” izeneko A20002 A2510 4809 335104 kontusailerako 150.000 euro aurreikusi ziren, hasiera batean.

Beraz, 2007ko martxoaren 9an, 2007an arteikasketak luzatzeko laguntzen deialdia argitaratu zen, eta xede horretarako, gehienez ere, 150.000 euro ematea onartu zen. Abuztuaren 30eko 322/2007 Foru Arauari jarraiki, deialdia ebatzi eta aurreikusitako 10 bekak eman ziren; zehazki, 105.173,24 euroko gastua agindu zen: 61.908,24 € 2007ko aurrekontuaren kontura, 43.265 € 2008ko aurrekontuaren kontura eta 43.265 € 2009ko aurrekontuaren kontura.

Gerora, 2007ko urriaren 22ko gobernu-akordioaren bidez, beste 89.000 euroko gastua onartu da kontusail beraren kontura, dirulaguntza zuzenean eman ahal izateko; zehazki, dirulaguntza horiek jaso ahal izanen dituzte, 2003ko eta 2004ko deialdien babesean arte-ikasketak luzatzeko laguntzak lortu arren, 2005eko eta 2006ko ekitaldietan kontusail espezifikorik izan ez zela-eta laguntza haiek berritu ezin izan zituztenek.

Beraz, aipatutako kontusailaren kontura, 150.908,24 euroko gastua agindu da, guztira.

2. Zergatik aurkeztu behar duten ikasleek urtero hautaketa-probak egitera.

Laguntzak ematen zaizkien ikasketen ezaugarriak direla-eta (horietako asko ez daude ikasketa akademikoekin lotuta), ikasleak aukera aprobetxatzen duela egiaztatzea aholkatzen dute. Bekadunek laguntzak berritzeko eska dezakete, bi urtez jarraian; horretarako, ordea, aurrez eskaera berezi bat egin behar da.

3. Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak ba al du asmorik etorkizunean dirulaguntza horiek handitzeko?

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

# Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Antzerki Eskolari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Patxi Telletxea Ezkurra foru parlamentariak galdetu zuen ea Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen 2008ko aurrekontuetan ENT/NAEri zuzenean esleituko zaion kontusailen bat sartzeko; hori dela-eta, honako hau adierazi du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak:

Horri dagokionez, adierazi behar dut 2008ko aurrekontuetako aurreproiektuan A20002 A22530 4816 335111 kontusaila sartu dela; partida horrek "Nafarroako Antzerki Eskolarekin egindako hitzarmena" du izena, eta xede horretarako 300.000 euro esleitu dira.

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón


HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urtebete | 47,00 | euro |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko | 1,25 | » |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko | 1,40 | » |

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Navas de Tolosa, 1

31002 IRUÑA

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, SL (Lizarra).

Lege Gordailua: NA – 363-1995

Paper ekologiko birziklatua